

Ontziratu gabeko elikagaiak azken kontsumitzaileari **ontzirik gabe ematen zaizkionak dira, zuzenean saltzeko edo berehala kontsumitzeko**. Definizio honen barnean sartzen dira honako hauek ere:

- Azken kontsumitzaileak hala eskatuta, **erostean ontziratzen diren** produktuak.
- **Tabernetan, kafetegietan eta jatetxeetan zerbitzatzen diren** elikagaiak.
- **Kolektibitateei ontziratu gabe ematen zaizkien elikagaiak.**
- **Azken kontsumitzaileari ontziratu gabe saltzen zaizkionak.**

### SARRERA

Kontsumitzaileari Elikagaiez ematen zaion Informazioari buruzko [1169/2011 Araudiak \(EB\)](#), 44. artikuluan, aukera ematen die Estatu kideei neurri nazionalak ezartzeko, ontziratu gabe aurkezten diren elikagaien kasuan, aipamenak aurkezteko erabil daitezkeen neurriak arautze aldera. Neurri horiek arautzeko, [126/2015 Errege Dekretua](#) hartu behar da kontuan. Horren bidez **onetsi zen azken kontsumitzaileari ontziratu gabe saltzen zaizkion elikagaien inguruko informazioari buruzko arau orokorra**.

### ZEIN PRODUKTUK EMAN BEHAR DU INFORMAZIO HORI?

Arau hori azken kontsumitzaileentzako honako elikagai hauei ezar dakieke (kolektibitateek emandakoak zein elkarteak hornitzekoak):

- Azken kontsumitzaileari eta kolektibitateei ontziratu gabe saltzeko** aurkezten direnei (ontziratu gabeko elikagaiak, tabernetako eta jatetxeetako janaria eta pintxoak, makina dosifikatzaileetako edariak...)
- Kontsumitzaileak hala eskatuta, saltokian ontziratutakoei** (hestebeteak, pastelak, gaztak, ontzietan eramateko edo establezimenduetan jateko prestatutako janaria...)
- Txikizkako saltokietako titularrek** establezimenduan berehala saltzeko **ontziratutakoei**

(kontsumitzailearentzat ontziratutako elikagaiak, autozerbitzuaren bidez edo saltzailearen bidez)

- Aurreko baldintza horiek ezarriko zaizkie **urritiko salmentaren bidez banatutako elikagai** ere (online edo urrutitik saltzen diren elikagaiak)



### ZER INFORMAZIO EMAN BEHAR DUTE ONTZIRATU GABEKO ELIKAGAIK?

Ontziratu gabeko elikagaiak hornitzen dituzten enpresek honako informazio hau eman behar dute:

Tartean alergia eta intolerantziak sortzen dituzten osagaiak dituzten kasuetan, kolektibitateek (tabernak, jatetxeak, jantokiak, ikastetxeak, ospitaleak) ematen dituzten ontziratu gabeko elikagaietan ageri beharreko informazioa izango da.

**Ontziratuta gabe ematen diren edo kontsumitzaileak hala eskatuta saltokian ontziratzen diren gainerako elikagaiak, alergiak eta intolerantziak eragiten dituzten osagaiei buruzko informazioaz gain, honako hauek ere azaldu beharko dituzte:**

- **Elikagaiaren izendapena.**
- **Osagai bakoitzaren** edo osagai-kategoria bakoitzaren **kopurua.**
- % 1,2ko graduazioa baino graduazio handiago duten edari alkoholduen **alkohol-maila.**
- Salmenta - modalitate honetarako elikagaien araudietan ezartzen diren beste baldintza batzuk.

**Txikizkako saltokien titularrek establezimenduan berehala saltzeko ontziratutako elikagaien kasuan,** kontsumitzailearentzako elikagaien informazioari buruzko araudian ontziratutako elikagaientzat finkatutako baldintza ezarriko dira, nutrizioari buruzko informazioa izan ezik.

- **Elikagaiaren izendapena.**
- **Osagaien zerrenda.**
- Osagai bakoitzaren edo osagai-kategoria bakoitzaren **kopurua.**
- Elikagaien **eduki osoa.**
- **Gutxieneko iraupenaren eguna** edo iraugitze-data.
- **Kontserbatzeko baldintza bereziak** eta/edo erabiltzeko baldintzak.
- **Ontziratzailearen izena** edo **izen soziala eta helbidea.**
- **Jatorriko herrialdea** hala aurreikusten denean.
- **Erabiltzeko modua,** informazio hori agertu ezean, elikagaia ondo erabiltzea gaitza den kasuetan.
- % 1,2ko alkohol-bolumena baino gehiago duten edarrietan, hartutako **alkohol bolumetrikoaren maila** zehaztuko da.



**Poltsetan eta produktua begi hutsez ikusteko aukera ematen duten beste ontzi batzuetan ontziratzen diren produktuetan,** eta frutak, barazkiak, tuberkuluak eta fruitu lehorrak dituztenetan, honako hau adierazi behar da etiketan:

- **Elikagaiaren izendapena,** dagozkion zehaztasunekin.
- **Eduki osoa.**
- Elikagai-enpresaren **operadorearen identifikazioa.**

### NOLA EMAN BEHAR DA NAHITAEZKO INFORMAZIOA ?

Elikagaiei buruzko informazioak bete egin behar ditu RIACen eta 126/2015 Errege Dekretuak onetsitako arauan eskuragarritasunari eta irisgarritasunari buruz jasotako baldintzak.

Informazioa ontzian edo ontziari lotutako etiketa batean jarri behar da.

Nolanahi ere den, produktua saltzaileak saltzen duenean, gutxieneko iraupen-data edo iraugitze-data izan ezik, gainerako datuak elikagaiak saltzeko aurkezten diren lekuan jarri ahal izango dira karteletan.



**Autozerbitzuaren araubidean, 126/2015 Errege Dekretuaren 5.2 artikuluan zerrendatutako produktuentzat poltsetan edo produktua begi hutsez identifikatzeko aukera ematen duten **beste ontzi batuetan ontziratzen diren produktuetan, eta frutak, barazkiak, tuberkuluak eta fruitu lehorrak dituztenetan, salmenta-izendapena saltzeko aurkezten diren lekuan jarri ahal izango dira karteletan, elikagaiaren ondoan.****

### ALERGENOEI BURUZKO INFORMAZIOA

Enpresa guztiek alergia eta intolerantziak eragiten dituzten osagaiei buruzko informazioa eman beharko dute.

Europar Batasunak aipatu beharreko 14 alergenoko zerrenda egin du.

#### Aipatu beharreko alergenoen zerrenda

1. Glutena duten laboreak, besteak beste: garia, zekalea, garagarra, oloa, espelta, kamuta edo horien aldaera hibridoak eta eratorriak, honako hauek izan ezik:

- a) garizko glukosa- xarabea, destrosa barne
- b) garizko maltodestrinak
- c) garagarrezko glukosa- xarabea;
- d) alkohol destilatuak (nekazaritza-jatorriko alkohol, etilikoa barne) egiteko erabiltzen diren laboreak.

2. **Krustazeoak** eta krustazeoz egindako produktuak

3. **Arrautza** eta arrautzaz egindako

produktuak

4. **Arrainak** eta arrainez egindako produktuak, honako hauek izan ezik:

- a) bitamina-euskarri gisa erabilitako arrain-gelatina edo karatenoide prestakinak ;
- b) arrain-gelatina edo iktiokola, garagardoa edo ardoa argitzeko erabiltzen dena.

5. **Kakahueteak** eta kakahuetez egindako produktuak,



6. **Soja** eta sojaz egindako produktuak, honako hauek izan ezik:

- a) erabat findutako soja-hazien Koipe eta gantzak;
- b) tokoferol natural nahasiak (E306), d-alfa tokoferol naturala, d-alfa tokoferol naturalaren azetatoa eta d-alfa tokoferol naturalaren sukzinatoa, sojatik eratorritakoak;
- c) fitosterolak eta fitosterol-estereak, sojaren landare-oliotik eratorritakoak;
- d) fitostanol estereak, sojaren hazi-olioaren fitosteroletatik eratorritakoak.

7. **Esnea** eta esneaz egindako produktuak, honako hauek izan ezik:

- a) alkohol destilatuak (nekazaritza-jatorriko alkohol etilikoa barne) egiteko erabiltzen diren lakto-gazura;
- b) laktitola.

8. **Oskola duten fruituak**, eta eratorriak, alkohol destilatuak (nekazaritza-jatorriko alkohol etilikoa barne) egiteko erabiltzen diren oskoldun fruituak izan ezik.

9. **Apioa** eta produktu eratorriak

10. **Ziapea** eta produktu eratorriak

11. **Sesamo – aleak** eta sésamo aleaz egindako produktuak
12. **Sufre dioxidoa eta sulfitoak** 10 mg/kgtik gorako kontzentrazioetan.
13. **Ezkuzuria** eta eskuzuriz egindako produktuak
14. **Moluskuak** eta moluskuz egindako produktuak

Nola eman behar da alergenoei buruzko informazioa

Informazioa emateko hainbat modu daude, betiere elikagaiekiko alergia edo intolerantzia duten kontsumitzailearen babes-maila altua bermatzen badu. Hona hemen informazioa emateko moduak:

1. **Elikagaiari itsatsitako etiketan**, aldez aurretik ontziratuta bada.
2. **Elikagaiak saltzeko aurkezten diren lekuetan, karteletan**, batetik, elikagaia aurretik ontziratuta bada saltzaileak; bestalde, ontziratuta gabe saltzen badituzte edo erosleak hala eskatuta saltokian ontziratzen badituzte.



3. Beste modu egoki batzuetan (esaterako: **menu bat edo karta bat, establezimenduan merkatatzen diren produktuen errezeta-liburu bat, ahozko informazioa**), betiere kontsumitzaileak eskuragarri baditu erosketa egin baino lehen eta ez badu horren truke ezer ordaindu behar.

Halakoetan, kontsumitzaileei modu errazean eta eskuragarrian adierazi behar zaie non lor dezaketen informazio hori eta norengana jo behar duten informazio hori eskatzeko.

4. **Urrutiko salmentaren kasuan** (adibidez, telefonoaren bidezko erosketan edo eramateko janaria saltzen duten saltokietan), alergenoei buruzko informazioa kostu gehigarririk gabe eman behar da:

- Erosketa egin baino lehen; adibidez, telefonoz edo webgunean,
- eta idatziz, elikagaia ematean.

#### BIBLIOGRAFIA

1. [Reglamento \(UE\) 1169/2011](#) sobre la información alimentaria facilitada al consumidor
2. [Real Decreto 126/2015](#) por el que se aprueba la norma general relativa a la información alimentaria de los alimentos que se presenten sin envasar para la venta al consumidor final.
3. [Guía sobre la información de los alimentos en comercio minorista y restauración](#) - Dirección de Salud Pública y Adicciones del Departamento de Salud del Gobierno Vasco
4. [Guía de la aplicación de las exigencias de información alimentaria de los alimentos que se presenten sin envasar para la venta al consumidor final y a las colectividades, de los envasados en los lugares de venta a petición del comprador, y de los envasados por los titulares del comercio al por menor](#) - AECOSAN